



**2023KO URTARRILAREN 23KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hogeita hiruan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Joxemai Ormazabal Sukia.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkurako akta, eta idazketa akats bat konpondu ondoren onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 77 zenbakidun fakturen zerrenda, BERROGEITA BI MILA ETA BERROGEI euro ETA LAUROGEITA BI zentimokoa (42.040,82 €) eta 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zenbakidun zerrenda, BEDERATZI MILA ETA HAMALAU euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimokoa (9.014,50 €), bere espedientean daudenak, onartzea erabaki da.

III.- FUTBOL ZELAIKO BELAR ARTIFIZIALA BERRITZEAREN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

Lazkaoko Harizti Haundi futbol-zelaiaren belar artifiziala berritzeko lanen obra zuzendaritza daraman Izaskun Larzabal arkitektoak, Ezketa S.L.P. enpresakoak, lanen lehen obra egiaztatzea eta bakarra egin du. Obra egiaztatze honen zenbatekoa BERREHUN ETA HOGEITA BOST MILA BERREHUN ETA ZAZPI euro ETA BERROGEITA ZORTZI zentimo (225.207,48 €) gehi BEZari dagokion BERROGEITA ZAZPI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIRU euro ETA BERROGEITA HAMA ZAZPI zentimo (47.293,57 €) da, guztira BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA BOSTEHUN ETA BAT euro ETA BOST zentimo (272.501,05 €).

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, lehen obra egiaztatze hau aho batez onartu du.

IV.- LAZKAOKO HARIZTI HANDI FUTBOL ZELAIAREN ARGIZTAPEN ARTIFIZIALEKO INSTALAZIOA EGUNERATZEKO OBRAREN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Lazkaoko Harizti Handi futbol-zelaiaren argiztapen artifizialeko instalazioa eguneratzeko lanen obra zuzendaritza daraman Izaskun Larzabal arkitektoak, Ezketa S.L.P. enpresakoak, lanen bigarren obra egiaztatzea egin du. Bigarren obra egiaztatzearen zenbatekoa HOGEITA HAMABI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI euro ETA LAUROGEITA HAMALAU zentimo (32.558,94 €) gehi BEZari dagokion SEI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI euro ETA HOGEITA HEMEZORTZI zentimo (6.837,38 €) da, guztira HOGEITA HEMERETZI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI euro ETA HOGEITA HAMABI zentimo (39.396,32 €)

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, bigarren obra egiaztatzearen hau aho batez onartu du.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 18-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuko ekarpena aldatzea 2022ko abenduaren 1etik aurrera, % 48tik % 15era, onuradunaren egoera ekonomikoa aldatu delako.
- 22-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urtarrilaren 3tik aurrera asteen 4 orduz etxeko garbiketetan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 24koa izango da.
- 22-11-12 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea abenduaren 23tik asteleheneretik ostiralera egunero 2 orduz, laguntza pertsonal eta etxeko garbiketetan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.
- 22-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea asteen 5,5 orduetik 17 orduera, 2022ko abenduaren 26tik aurrera, onuradunaren osasun egoera aldatu delako. Erabiltzailearen ekarpena % 15ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-



22-01-017 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarrietik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.



LAZKAOKO UDALA

- 23-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 87,88 € ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 95 da.
- 22-01-012 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 € ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-013 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik uztaileta eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urtarriletik uztaileta. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 21-01-010 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik ekainera eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urtarriletik ekainera. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-002 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

Epe luzean ingesaturik daudenentzako dirulaguntzak.-

- 20-18-01 zenbakidun esped.: garraiorako, 72,37 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura, bere semea bisitatzeko Arrasateko Aita Menni Ospitale Psikiatrikoan ingesaturik dagoelako.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Suthai Taldea.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da 3.000 €, orain ordaintzea. Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.06.334.00 2023 partidatik egingo da.

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren erdia, hau da 35.000 €, orain ordaintzea. Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.02.326.00 2023 partidatik egingo da.

Oin Arin Dantza Taldea.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da 9.000 €, orain ordaintzea. Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.01.334.00 2023 partidatik egingo da.

Gurutze Gorriari.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren erdia, hau da 2.500 €, orain ordaintzea.



Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.03.231.00 2023 partidatik egingo da.

Lazkaoko Musika Bandari.-

2023an aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da 3.000 €, orain ordaintzea.
Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.07.334.00 2023 partidatik egingo da.

Zawopi Aisialdi Taldea.-

2023ko urtarrilean errege kabalgata antolatzeagatik 1.678,43 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.09.334.00 2023 partidatik egingo da.

VII.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

Gerriko S.L. Liburudenda.-

Abenduaren 12tik 18ra egindako XXXIV. Gabonetako euskal liburu eta disko kanpainaren barruan saldutako kopuruaren % 15eko ordainketa egitea. Saldutako kopurua 12.891,84 € izanik, ordaindu beharrekoa 1.933,78 € dira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2022ko aurrekontuaren 1 481.06.335.00 partidatik.

VIII.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beren saltokietan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei zortzigarren ordainketa egitea:



Merkataria	Zenbatekoa
AMAIA CARRO VIAÑA Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	20 €



GUZTIRA	20 €
----------------------	-------------

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

Merkatariei Gabonetako erakusleihen lehiaketako sari-bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako 2022ko Gabonetan burututako erakusleihen lehiaketaren kanpainaren barruan, parte hartu duten hainbat merkatariei beren saltokietan jaso eta ekarri dituzten bonuen arabera lehen ordainketa egitea:

Merkataria	Zenbatekoa
MILA MARTINEZ (DIGITAL IZAR)	20 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	115 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	80 €
MARIANA OSTERGAG (MAMUFO)	5 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	150 €
GUZTIRA	370 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.01.430.00 partidatik egingo da.

IX.- LANDA LUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lur arloko zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarak honako diru laguntza hau onartu du:

Lazkaoko Baserritarren Tresna Elkarteari.-

2022eko udal aurrekontuan aurreikusitako 3.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 471.01.412.00 partidatik egingo da.

X.- SASIETA MANKOMUNITATEAREN 2022KO EKARPENAREN ERREGULARIZAZIOA ETA 2023KO EKARPENA

Sasieta Mankomunitateak, bera osatzen duten Udalek 2022an egindako ekarpenen erregularizazioa egingo duela jakinarazi du. Hori dela eta, Lazkaoko Udalari 5.457,50 € itzuliko dizkio.

Honez gain, Udal hauek 2023an egin beharreko ekarpenak ere planteatu ditu.

Planteamendu horren arabera Lazkaoko Udalaren 2023ko behin-behineko ekarpena 547.924,03 € izango da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Sasieta Mankomunitateari, 2023 urtean, 547.924,03 €ko ekarpena onartzea erabaki du aho batez.

XI.- TAXIEN HIRI TARIFEN IGOERA ESKAERAREN BERRI EMATEA.-

Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak 2023 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Datorren urterako % 10,3ko igoera proposatu du. Goierriko herri guztietarako hiri-tarifa berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udalaren Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali beharko litzateke honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidetu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreren azterketa ere bidali dute.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2022)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua	Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua
3,7433	1,1719	22,3832	3,7433	1,8690	35,1790

2023rako Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak proposatu dituen hiri-tarifak honako hauek dira:

HIRI - TARIFA (2023)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua	Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua
4,1288	1,2926	24,6886	4,1288	2,0615	38,8025

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da

** Tarifa hau egun orotan 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara eta halaber larunbatan eta abenduaren 24 eta 31n aplikatuko da.



LAZKAOKO
UDALA

XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-



LAZKAOKO
UDALA

Ez da galderarik egon.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogeita hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA